

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

3254

AGINDUA, 2022ko ekainaren 23koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzen baitira Venture Café Bilbao Fundación izeneko fundazioa azkentzeko eta likidatzeko erabakiak.

2021eko urriaren 11n sartu zen Gobernantza Publiko eta Autogobernu saileko Erregistro Orokorrean, Venture Café Bilbao Fundación izeneko fundazioaren azkentzea eta likidazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko eskaera. Azkentzeko erabakia eta likidazio-eragiketak Bilboko Jaime Fernández Ostolaza notarioak 2021eko urriaren 7an baimendutako eskritura publikoan gauzatu ziren (protokolo-zenbakia: 1481).

Horrekin batera, administrazio-espeditentean dagoen dokumentazioa aurkeztu zen.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuak eman behar du, agindu baten bidez, azkentze- eta likidazio-espeditente honi buruzko ebazpena, bat etorritik arau hauetan xedatutakoarekin: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletza eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 3.1.a) artikulua; Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzeko Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 7.1.n) artikulua; eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 3.1 artikulua.

Espeditenteari funtsezko iritzitako datuak eta dokumentu guztiak erantsi zaizkio, eta bereziki bete dira Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 40., 41., 42., 43. eta 51.2 artikuluetan; eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletza eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 48. eta 49. artikuluetan aurreikusitako baldintzak.

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzea Venture Café Bilbao Fundación izeneko fundazioa azkentzeko eta likidatzeko erabakiak, agindu honen datarekin, Bilbon, Jaime Fernández Ostolaza notarioaren aurrean 2021eko urriaren 7an egiletsitako azkentze- eta likidazio-eskrituran aurreikusitako baldintzetan (protokolo-zenbakia: 1481).

XEDAPEN GEHIGARRIA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea eta interesdunei jakinaraztea.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honek administrazio-bideari amaiera ematen dio, eta, ondorioz, honen aurka, aukurako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, hilabeteko epean; bestela, Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hileko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko ekainaren 23a.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,
OLATZ GARAMENDI LANDA.